

## PASAIKO UDALERRIA

### GENEROARI BURUZKO DIAGNOSI PARTE-HARTZAILEA

NAROA ARGOITIA IÑURRITA  
URTZI UGALDE NOTARIO  
PASAIA. 2009



AURKIBIDEA

# AURKIBIDEA

- SARRERA
- HELBURUAK
- METODOLOGIA
- AKTOREAK / FASEAK

# SARRERA

- **Egoeraren analisia:** Parte hartzea ≠ Parte-hartzailea.
- **Prozesu parte-hartzailea/ Diagnosi parte-hartzailea.**
  - Autodiagnosia.
  - Informazioaren sortzaile herritarrak izango dira.
  - Ikertuak subjektu izango dira.
  - Prozesua emaitza bezain garrantzitsua izango da.
- **Genero-ikuspegia.** Genero-ikuspegiaz lan egitean errealitateari puntu hauek kontuan hartuz begiratzen zaio;
  - Ezberdintasun biologikoak nola bihurtzen diren desoreka sozial.
  - Ezberdintasun hauek emakumea nola kokatzen duten desabantailan gizonarekiko.
  - Ezberdintasun hauek jaiotzetik nola diren eraikiak, eta mekanismo zein estruktura ezberdinak tarteko, nola mantentzen eta etengabe birsortzen diren.

# SARRERA

- **Genero diagnosis.**
  - Generoa aipatzean, esan beharra dago sexua eta ezaugarri fisiko eta biologikoen gainean egiten den eraikuntza soziokulturalaz ari garela hitz egiten. Honela, genero analisia emakume eta gizonen arteko posizio ezberdindua zein beraien arteko botere harremanak azaleraztea litzateke, aipatu berri diren 3 printzipioetan oinarrituz.
- **Azterketa-tresnak.** Bide honetatik, erabiliko diren azterketa-tresnak hauek izango dira;
  - Interes estrategiko eta behar praktikoen analisia.
  - Rol hirukoitzaren analisia; produktiboa, erreproduktiboa, komunitarioa.
  - Onura eta errekurtsoen gaineko eskuragarritasun zein kontrola.
  - Autonomia eta boteretzea.

## • HELBURUAK

- Jendarteko egitura ezberdinetako emakumeen diskurtsoak azalerratu, haiekin harremanak izan eta horiek azalaraztea izango da helburua; hots, emakumeen egunerokotasuneko kezka eta oztopoen inguruko diagnosi kolektibo bat osatzea. Izan ere, haiek dira bizimoduaren isla zuzena, eta, beraz, hori hobetzeko bide.
- Udalerriko antolakuntza egitura ezberdinetan, genero-ikuspegia eta emakumearen parte hartze zein ahalduntzean diharduten giza esparru ezberdinak indartzea bilatuko da. Gizarte zibil auto-antolatuagoa eraikitzea. Prozesu parte-hartzaile batek, besteak beste, herritarrak eta aktore ezberdinak parte-hartzean ez ezik, euren bizien subjektu aktibo izaten ere prestatzen ditu.
- Aipatutako gaiarekiko prozesu parte-hartzaile baten hastapen-fasea egitea: (1.) Diagnosi parte-hartzailea. Giza baldintzen hobekuntza eta eraldaketa gisa. Hurrengo faseak: (2.) Politika publikoen zehaztaperen parte-hartzailea (3.) Ebaluazio iraunkorreko politika publikoak ezartzea.


## • METODOLOGIA

- **IAP edo ikerketa-ekintza-parte-hartzailean** oinarrituko da. *Definizioa eta ezaugarriak:*
  - Jakintzaren sorkuntza kolektiboa.
  - Herritarrak barneratzea prozesuaren inguruko definizio eta garapenean.
  - Inguru analizatu, lehentasunak definitu eta ekintza erabakitzean diagnosi konpartitua izatea.
- **Ikerketa subjektua Emakumea** izango da, beraz, hari dagokio diagnosiaren interes eta aukerak ezartzea. Emakumearen inguruko egoera azalaraztea helburu izanik, ikerketan parte hartuko dutenak emakumeak izango dira. Emakumea, estrukturalki eta beraz arlo orotan baztertuta dagoen sektorea izanik, haren ikuspuntuen berri izatea bilatuko da, bizipenetatik eta subjektibotasunetik abiatuz eta betiere, berdintasuna erdiesteko egoera espezifiko desorekatsu hau iraultzea helburu izanik.
- Ikerketa prozesu honen baitako diagnosian, **ikerketa teknika kualitatiboak** erabiliko dira batez ere. Hots, ikergaiaren analisia sakonekoa izan behar dela ondorioztatuz, testuinguru subjektiboa eta espezifikotasunak errespetatu eta kontuan hartzeko:
  - Elkarrizketa pertsonalak
  - Eztabaida taldeak
  - Talde dinamika espezifikoak
  - Parte hartze tailerrak
  - Eztabaida eta adostasunean jartzeko mintegiak

## • AKTOREAK / FASEAK

- AKTOREAK:

- Teknikariak: Atal edo departamenduetako gai zehatzetan adituak diren langileen multzoa.
- Politikariak: Arduradun politiko zein gainerako alderdi politikoetako kideak.
- Jendarte antolatua: Parte hartze sozio-politikoaren bitartez osatzen duten emakumeen multzoa: Pasaiaiko militanteak. Alde batetik, herriko talde feministako kideak zein emakume taldeetako kideak. Bestalde, gainerako elkarten multzoa (kirol taldeak, talde politikoak, kulturalak, aisialdi taldeak...).
- Herritarrak: Normalean parte hartzerako kanal ezegonkorrak edota gutxienekoak dituzten emakumeen multzoa. Pasaiaiko jendartea, betiere herriko aniztasun oso eta espezifikoaren isla izan daitezten. Hala, emakume etorkinekin, gazteekin, helduekin eta hirugarren adinekoekin egingo dugu lan. Herriko barruti ezberdinetakoak izatea bilatuko da, eta hori izango da zeharkako aldagaia.



## • AKTOREAK / FASEAK

- **1. fasea.** Herrian kokatu eta prozesuaren diseinu zehatzagoa egitea.
- **2. fasea.** Talde eragilea sortu. Talde eragile honen funtzioa prozesu osoa bideratu eta egonkortzea izango da.
- **3. fasea.** Herritarrengana hurbiltzea. Ezagutza komunitatean eta kolektiboki sortzea.
- **4. fasea.** Jasotako informazio guztia bildu eta hura sistematizatu eta talde eragilean kontrastatzea.
- **5. fasea.** Jasotako ekarpenekin ondorioak berriz formulatzea eta ezagutza komunitateari itzultzea.